

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO

# HITZA

6 //

Lea-Artibai

HITZA  
Eguena, 2016ko urriaren 27a

## Lekitto Bixirik herri krosak zeharkatuko du Lekeitio, domekan

Lau lasterketa egongo dira, adin maila ezberdinetakoak • 11:30ean hasiko dira umeen lasterketak • 12:15ean hasiko dute krosa 15 urtetik gorako nagusiek

-E.M.U.

Herriarren parte hartzea eta kirola bultzatzeko helburuz, berderatizgaren Lekitto Bixirik herri krosak zeharkatuko du Lekeitio, domekan. Lau lasterketa egongo dira, adin maila ezberdinetakoak.

11:30ean hasiko dira umeen lasterketak. Lehenengo 2010-2013 urte bitartekoak egingo dute aringa-aringa -450 metroko ibilbidea- portuan zehar. Horien atzetik, 11:45ean, 2006-2009 urte artekoak 1.050 metroko ibilbidea egingo dute, eta 2002-2005 urte bitartekoak 1.400 metroko ibilbidea bete beharko dute, 12:00etan herriko plazatik irtenda.

15 urtetik gorakoentzat (2001 urtetik aurrerakoak) 5 kilometro eta erdiko ibilbidea zehaztuta egongo da. 12:15ean hasiko dute krosa.

Parte hartzaile guztiak izango dituzte opariak. Lasterketa luze-ko parte hartzaileek kamiseta bat jasoko dute, eta lasterketa amaitu ondoren, ura eta fruta eskainiko dizkiete, eta zozketa batean parte hartuko dute.

«Parte hartzaile guztien artean, Beitia Barri jatetxean bi laguntzako afari bat eta Axis osteo-

patia zentroan hiru sesio zotz egingo ditugu», aurreratu dute.

Helmura lehenengo heltzen den emakumeak eta gizonezkoak bertoko produktuekin osatuko otzara bana irabaziko dute.

Umeentzako, bestalde, opari berezi bat edukiko dutela aurreratu dute antolatzaileek.

### Zapatua orduko

Lasterketan parte hartzeko izena alde zuzen zuzen bertan egunean eman daiteke. Hala ere, aurretik izena emanez gero, ordaindu beharreko kopurua txikiagoa izango da.

Zapatua baino lehen izena eman nahi dutenek [lekittobixirik@hotmail.com](mailto:lekittobixirik@hotmail.com) posta elektronikora idatzi behar dute, izenabizenak eta NAN zenbakia jarrita. 5 euroko ordainsaria lasterketa egunean ordainduko dute.

Lasterketa egunean izena ematen dutenek, berriz, 10:30etik aurrera herriko plazan egongo den mahaian eman beharko dute izena. Ordainsaria 7 eurokoa izango da orduan.

Bestalde, antolatzaileek jakitera eman dutenez, 2002 eta 2013 bitartean jaiotako umeek ez dute ordaindu beharko.

## Europak diruz lagundutako proiektuak jarriko dituzte abian Lea-Artibai eskualdean

Azaro Fundazioak, Leartibai Garapen Agentziak eta Leartikerrek parte hartuko duten egitasmo europarrek 2,5 milioi euro baino gehiagoko finantzaketa edukiko dute

-EIDER MUGARTEGI

Azaro Fundazioa, Leartibai Garapen Agentzia eta Leartiker zentro teknologikoa hainbat proiektu europarretan ari dira parte hartzen. Eskualde Garapenerako Europako Funtsagaz (FEDER) batera finantzatutako proiektu horiei esker, hiru erakundeek Lea-Artibai eskualdean eragin zuzena izango duten 2,5 milioi eurotik gorako finantzazioa izango dute, 3 eta 4 urte bitarteko iraupena izango duten proiektuak garatzeko.

Ekonomia zirkularra, ezagutzaren transferentzia eta berrikuntza ekosistemak, osasuna, ondare naturala eta kulturala, esnekiak, materialak (plastikoa eta polimeroak), aeronautika eta au-

tomozioa oinarri hartuta, hainbat proiektu garatuko dituzte, eta proiektu horiek burutzeko hainbat bazkideren laguntza izango dute.

### Nazioarteko lankideak

Nazioarteko herrialdeei dago-kienez, Errumania, Eslovenia, Norvegia, Italia, Herbehereak, Alemania, Suedia, Frantzia eta Portugalako lankideak edukiko dituzte proiektuak gauzatzeko; Espainiako estatu mailan, ostera, Herrialde Katalanak, Gaztela eta Leon, Galizia, Nafarroa eta Zaragozakoak; eta Euskadiko BEAZ, Mondragon Unibertsitatea, HAZI, Batz eta Cikautxo kooperatibak eta Idiazabalgo Udalgaz lankidetzan ariko dira.

«Proiektu hauen garapenari esker, ezagutzaren transferentzia, dibertsifikatzeko aukerak, proiektu berritzaileen sorrera eta lehiakortasuna bultzatuko dira. Horrela, eskualdeko enpresa eta ekintzaileek nazioartekotzeko aukera gehiago izango dute; mugaz harandikoko enprekin harremanak finkatu, Europa mailan zer egiten den ezagutu eta elkarlanak bultzatzeko».

Besteak beste, Aerocar, Fodyplast, Health LSR, Innolact, Nof Modeling Factory, NOI Powertrain, RaceTP eta Virtual Upscalling proiektuak garatuko ditu Leartikerrek, Hericoast Lea Artibai Garapen Agentziak, eta Retrace eta Transferinn Azaro Fundazioak.

## Puntisten urratsak jarraituko dituzte etzi, Markina-Xemeinen

-E.M.U.

2016ko Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, zesta-puntak eta puntistek mundu osoan eduki duten hedapenaz eta garrantzia jabetzeko hainbat jarduerak egongo dira etzi aukeran, Markina-Xemeinen.

Hasteko, 11:00etan, hitzaldia egongo da Migel Angel Bilbaoren eskutik. Zesta-puntaren eta zestalarrien ibilbidea ikertu, jarraitu eta liburuetan ere jaso du Bilbaok, eta kirol horren jatorriak, nazioarteko hedapena eta zestalarrien eta horien familien bizimodua azalduko ditu; zestalarriak hainbat herrialdeetako estatu-kolpe, gerra eta iraultzen lekuko izan direla, besteak beste.

### Erakusketa

Hitzaldia amaitutakoan, zestalarrien argazkien, materialen eta jantzien erakusketa zabalduko dute Pilotaren Unibertsitatea le-



Florentzia (Italia) 1919. MIGEL ANGEL BILBAO-REN ZESTA-PUNTA LIBURUKO ARGAZKIA

gez ezagutzen den herriko frontoi nagusian. Bost kontinenteetan sakabanaturik egon ziren frontoietako argazkiak, pilotari taldeenak, partidak eta puntisten bizimodua jasotzen duten irudiez jantziako dute frontoia. Horrez gain, pilotak eta zestak zelan egiten diren ikusteko aukera egongo da. Muntaiaren pro-

zesu osoa azalduko dute, bertatik bertara, zesta eta pilota egileek, materialetatik hasi eta zestak eta pilotak eskuan eduki arte.

Amaitzeko, zesta-puntako erakustaldia egongo da. Lehenengo, kiniela bat jokatu dute 8 eta 9 urte bitarteko umeek, eta ondoren, nagusiak aterako dira kantzara, partida bat jokatzeko.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza